

II

XOBADINA ETA BERE ALABAK, MARIA ETA XANETA

KATTALINEK.—Guk ere, naski, hoi dukegu hoberena, Luixa? Ez goazi ohera?

LUIXAK.—Bai eta berehala; gure adixkideak joanik hola, iduri zaut heien orde sorgin zerbait atherako zaukula, zoko zonbeitetarik. Lazta bat sumatzen bezala dut egiazki.

KATTALINEK.—Bai, ori, Jainkoaren gomendiora! Othoitz on bat eginen dugu, eta gogoia bakean lokartuko gira. Sekulan erraitekotz, gaur behar dugu erran gure amaxori ikasi lehenagoko othoitz pollita:

Mahuma, Mahuma, ez nuk hire beldur;

Jainkoarekin etzaten nuk,

Ama Birjinarekin jaikitzen nuk,

Bi aingeru ditiat ene sahetsean;

Ez hakitala atrebi othoitzean,

Ez loan, ez ametsean,

Jesus, diat ene bihotzean!

Banoa loaren hartzera;

Jesus zure izenean, gau eta egun!

Jauna, zure odol dibinoaz erosi nauzunaz munduan,

Arren errezebi nezazu hil et'ondoan zeruan!

Jainko ona, othoi eman ezadazu

zure benedizione saindua,

Zutaz entzuna izaiteko grazia! Halabiz!

BIEK.—Gau on, ama! Bihar arte, Maria eta Xaneta!

Badoazi hek ere, alegia eta ohera.

IV

XOBADINA, MARIA ETA XANETA

Bultaño bat ixilik egon ondoan.

XOBADINAK.—Eta zuek, Maria, Xaneta?

XANETAK.—Ori, Xobadina, ez dakit batre zer egin. Harritua nago, ikharan; beldur naiz, beldur osoki, etxera joaiteko. Bakarrik han ez egon nahiz ethorria ere nintzan...

MARIAK.—Ni ere bai, hala hala... Bertze horiekin joan bagine, bideak bederen ez ginituen izituko... Nahiz gero, etxean!...

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS BIDEA

1. Kattalinek eta bere auzpeko zer erabaki dute?
2. Nor dira abesten dutena othoitzan?
3. Xobadina, Maria eta Xaneta h zer diote?

③ ADITZ IKASKUNTZA.

31 Ez nuk hire beldur. 32 Jesus diat.

33 Errezebi nezazu. 34 Eman ezadazu.

35 Ez hakitala.

31. IZAN. Conjugaison familière. Indic. Présent

Ni ^Hnuk → ^Fnun → je suis

Hi haiz → haiz = tu es

Hura duk → dun = il est

Guk gaitate → gaitun = nous sommes

Zuek zirezte (zaitze) → = vous êtes

Heik ditak → ditun = ils sont

32. UKAN. Conj. familière. Indic. Présent. O. Sing.

Nik diat → diat = je l'ai

Hi duk → dun = tu l'as

Harek duk → din = il l'a

Guk diaugu → diaugu = nous l'avons

Zuek duzue → duzue = vous l'avez

Heik die → die = ils l'ont

O. Po ditiat (ditiat), ditak (ditun), ditik (ditin), ditangu (ditinagu), ditie (ditine).

33. UKAN. Conj. transitive à C. lt direct

Impératif.

C. D → ni = me, moi

Ukan nezazu = Ayez-moi sing

- " - beneza = qu'il m'ait

- " - nezazue = Ayez-moi / plus!

- " - benezate = qu'ils m'aient

Ikus nezazu = Voyez-moi

Entzun benezate = Qu'ils m'écoutent